

# URDAIBAI

2019  
zenb. 18  
.....



© MAGAZINE

## GERNIKA

ITSASOARI BEGIRA JAIO ZAN



- | ANA OTADUI  
Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria
- | URDAIBAICO PADUREN ERABILERA
- | PASEALEKUKO TXAPELKETA
- | TRIBISBURU, HILETA MONUMENTUA
- | IDARRAK, PERLA BERDEA
- | MURUETAKO TEILERIA



# URDAIBAI

©MAGAZINE ONLINE

# 5

# urte





## Bizirik irautearen emaitza

Urdaibai Magazinen sarrerako berba gitxi hauek idazterako orduan publikatzen doguzen artikuluen esentzia bilatzen dogu, izendatzaile komuna. Eta zenbaki bakoitzean geure eskualdeko indarguneak azaleratzen dira. Geure lurraldeko paisaia Busturialdeko bilakaeraren ebidentziak kontserbatzen dira. Hauek jente beharginak gogora ekartzen deuskue, ekintzaileak, gizabidetsuak, sortzaileak. Pertsona hauek kultura zabala, sustraiak eta nortasuna utzi deuskue oinordetzan, bizitzaren erantzukizunaren norbanako eta taldeko erronkei aurre egiteko.

Bertako aztarna ugariak agerian uzten dabe komunitate anitzek asentamenduak ezartzeko baldintzak eta erakargarritasunak betidanik izan direla bizi garen lurralde honetan, Santimamiñetik, garai megalitikoak, Burdin Aroa, erromatar garaia gaur egunerarte...; enpresen ezarpena, burdinolak, errotak, ontziola, kontserba-enpresa, mahai-tresnen enpresak...; basoen ustiapena, baserrien labrantza eta abeltzaintza... jarduera guzti hauek elikagaiak lortzeko.

Emon diren jarduera guztiak pertsonentzako aberastasuna ekarri dabe, geure "paisaia kulturalari" itxurea emon deutse eta oraina oparitu deuskue. Egun, herrien historian betidanik gertatu dan lez, aurrera jarraitzeko aukerak anitzak dira eta zailtasunak be badagoz. Baina historiaren beste une batzutan gertatu dan bezala erabaki onak hartzeko geure gaitasunean konfiantza euki behar dogu. Proposatatu, alkarbanatu, parte hartu, eztabaidatu, adostu, errespetatu, konprometidu, kontzeptuak baino gehiago dira... eraiki behar dogun legadua zentzuduna eta jasangarria izateko funtsezko jokabideak dira.

### HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

### ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo

Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

[www.nuevaeuropa.eus](http://www.nuevaeuropa.eus)

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**Bizkaia**  
euskaraz eta kulturaz soilik  
departamentu de euskara y cultura

**Zer ideia ona!**  
nueva europa

# AURKIBIDEA



**08 ZENBAT BURU...**  
KOLABORAZIOAK

**16 LEKUKO**  
TRIBISBURUKO NEKROPOLIA,  
Sollubeko hileta-monumentua

**18 KALERIK KALE**  
NARDIZTARRAK,  
Esku handikoak, politikoak eta bermeotarrak

**22 SALTSA-PORRU**  
IDARRAK...  
Udabarriko perla Berdeak

**24 BERDEAN**  
URDAIBAICO PADURAK  
Paisaia aldakorraren edertasuna



# GERNIKA

## ITSASOARI BEGIRA JAIO ZAN

Gernika jatorriz Lumoko ontzireleku xumea zan. Izate propioa izan eban, Hiria bezala, 1366. urteko *Hiri-Gutunari* esker. Bere merkatal jarduera funtsezkoa izan zan Hirirako, horregatik esfortzu handiak egin ziran portua erabilgarri mantentzeko. Halanda be, denboraren poderioz portua zarratu zan portu jarduera erabilgaitx eginez. Gaur egun ibai-kultura berreskuratzeko aukerak eta itsasadarra eta bere ingurua, baliabide poliedrikoa lez ikusteak, natura eta herriaren arteko alkarrekintza sortuz, Gernika-Lumoko garapenaren ahalmena aberastu egiten dau.

**G**ernikako garrantzi sinbolikoa, politikoa eta instituzionala dudaezina da. Izan be, mundu guztian ezagutzen dan izena da Gernika, geure mugatik harago helduz. Baina inguru honen jatorriak, lehenengo paraje lez, eta geroago, hiria lez, ezezagunagoak diran gorabeherak gordetzen dauz. Gaur egungo paisaia ikusita, Artekale eta San Juan ingurua, antxinan merkatal ainguraleku alaia izan zala imajinatzea, Gernika jatorriz


Lumoko portua izan zala pentsatzea, erronka bat da irudimenerako. Erreka Egalaren ur xafla estuak, mareek Errenteriako zubitik harago eramaten dabeela, meandro nabegagarrien "*biziraule*" bakarra da, antxinan hauetatik heltzen zan Gernika izena eukan lekura.

Lumo eta Gernikari buruzko lehen aipamen dokumentala, dohaintza bat zala eta, Donemiliaga Kukulako monasterioko kartularioan batutako dokumentu baten





*Gaur egungo hiri-paisaia ikusita, Artekale ingurua, antxinan merkatal ainguraleku alaia lez imajinatzea, Gernika jañorritz Lumoko portua izan zala penñsatzea, erronka bañ da irudimenerako*



Donemiliaga Kukulako monasterioko kartularioa X. mendea (Originalari egindako argazkia)

agertzen da (Donemiliaga Kukulako monasterioko "Becerro Galicano" lez ezaguna), 1051. urtarrilaren 30eko datagaz, X.mendeko beste dokumentu baten kopia bat.

Lumoko ainguraleku-paraje xume hau, Gernika izenekoa, gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zan eta hamarkada gutxi igaron ondoren, portuan bilakatuta, kostarteko ibilbidea egiten ebeen ontzi txikiak hartzen ebezan. Bere inguruan biltegiak, ontziola txikiak, mesoiak eta ostatuak eraiki ziran.

Joan-etorri hauen onuradun handiak, Mezetarrak izan ziran, Lumoko jaunak eta portuaren jabeak. Hauek zergak kobratzen ebeezan ontziei.

Merkataljarduera tentagarri hau ez zan oharkabez pasatu Bizkaiko jauneentzako. 1366.urtean Don Tello kondeak, portuko merkatarien eta bizilagunen laguntzagaz, Gernika Lumotik eta Mezetatarrengandik banatu eban. Horrela, erakunde politiko eta juridiko barri bat sortuz: Gernikako Hiria. Garai hartan hamar etxe egoazen bertan

eta honen erreka eta portuarekiko mugak gaur egungo Artekale egoazan. *Gernikako Hiri-Gutunak* bertako bizilagunentzako salbuespenak eta pribilegioak ekarri ebezan. Besteak beste, bere ondasunen arabera Jaunari ordaintzearen derrigorraz libratu; ondorengorik barik hil egiten ziran bere agindupean zeudenen ondasunak



Busturialde,  
**EUSKARA** eta  
**URDAIBAIEN alde**







oinarritzen ziran. Horrez gain, zorioneko aurkikuntza arkeologiko bat be emon zan, "Urbietako Ontzi-hondarra". Honek, gainontzeko informazio garrantzitzua ekarri dau. 1998. urteko uztailan, Gernikako itsasadarran, Urbietan inguruan, egurrezko ontzi baten aztarnak agertu ziran, 10-12 metrotako luzerakoa, "Urbietako Ontzi-hondarra" lez ezaguna, desagertutako Gernikako historiaren garai opatsuren lekuko.

hartzeko Jaunak eukan eskubidea kendu; hildako bakoitzeko diru jakin bat ordaintzearen derrigorraz libratu; eta lehenengoko zortzi urteetan zergak ordaintzearen derrigorra kendu. Horrez gain, Gernikan izan ezik, Busturialdea osoan edozein salerosketa debekatu zan.

Gutunak pribilegio, salbuespen eta eskubide guzti hoi onuradurak Gernikako Hiriaren bizilagun guztiak zirala aipatzen eban, inongo baztertze soziala edota ekonomiko barik.

Portuko jardueraren aztarnak inguruan aurkitu diran burdin mineralaren hondarrak dira baita Bizkaian XIV. eta XVI. mende artean egondako portu jardueraren gaineko datu orokorrak be. Datu hauek artile eta burdinan

Ontzi-hondarra lur eta lokatza azpitik lau metrotara aurkitu zan. 560 urteetako antxinakotasuna daukala estimatzen da, radiokarbonoak 1450 eta 1460 urte bitartean kokatu eban. Hori dala ta, Urbietako ontzi-hondarra Kantabrikoan aurkitutako ontzirik zaharrena da. Haritz egurraz eginda egoan (ontzi-kroskorren uhalak) eta pagokoa (gila), ori koloreko itsasarotzez breatuta barrutik eta kanpotik. Hasiera baten arrantzatzeko erabili zan eta geroago, merkantziak eta burdin minerala Gernikatik Bermeora garraiatzeko erabili zan.





Gernikako merkatariek eta arduradunek, Jaurreriaren agintarien laguntzagaz, portuaren garrantziaz eta esanahiazohartuta, kanalen etengabeko lohiz betetzearen fenomenoaren kontra egin eben irmotasunez. Izan be, hauek hirira heltzen ziran itsasotik. Halanda be, portua sakonera eta kanalak galduz joan zan. Prozesu honek XVI. mendean Errenteria etxearen ezarpena ekarri eban (portuko merkataritza kontrola egiten zan bertatik) eta portua itsasadarraren beste ertzean egoan, gaur egungo Errenteria auzoan. Esfertzuz guztiak egin arren, portura eramaten eben itsasadarraren kanalak, zarratuz joan ziran, trafikoa eta portuko jarduera ezinezkoa eginez.



"Urbietako Ontzi-hondarra"ren aztarnak Bizkaiko-Arkeologi Museoan

*"Gernika" itsasoari begira jai  
zan, barrikuntza eta aurrerapena  
bilatuz. Itsasora barriro "begiratzea"  
jarrera soziokulturala da, Gernika-  
Lumo etorkizuneko hiri lez  
garatzeko aukerak kualitatiboki  
biderkatuz*

## Mareagaz bat

Gernika-Lumoko iparraldeko mugan, herriko ezinbesteko alde baten, hiria eta landa inguruaren arteko trantzisioa emoten da, baita Urdaibaiko manifestazio naturalik esanguratsuena eta baliotsuena be: padura eta kostaldea. Natura eta hiria bat egiten daben inguru honetan, aukera on bat da, kalidatezko aisialdirako gune bat sortzeko. Alde batetik, Gernika-Lumok dauzkan gune berde ederren zabaltze eta dibertsitatearen zirkulua zarratuz. Eta beste alde batetik, kostalderarteko paisaiaren jarraipena eta sarbide jasangarria eta barneratua erraztuz. Ezin dogu ahaztu "Gernika" itsasoari begira jai zala, barrikuntza, aurrerakuntza bilatuz. Biztanlegoak, itsasadarra eta itsasoagaz alkarrekinez, bere historian zehar, ibai-kultura garatuz.

Gaur egun, Gernika-Lumoko itsasorako irteera sakonera gutxiko eta ertz aldakorrezko kanal artifizial baten geratu da, baina hortxe dago, garai bateko oroimen ahula gisa eta imajinarioagaz, ekimenagaz, proiektu onakaz

eta ingurugiroa errespetatuz, Gernika-Lumo barriro be itsasora "begiratu" ahal dauelaren froga irmoa lez be. "Errekaren Egala" ezaguna sarrera erabilgarria da, komunikabidea eta aktibo bat da.

Ibarraren industria-sasoirik onenean, itsasadarra oinarrizko baliabide hidrikoa izan zan enpresa indartsuen ezarpenerako. Hauek, aberastasuna eta oparotasuna ekarri ebenen Gernika-Lumora. Gaur egun, "Uholde-arriskugarritasunaren asmo handiko Plana" dago, etorkizunean inguru hontan uholdeak ekiditzeko. Garapen jasangarriko helburuen ikuspuntutik inguru hazteko aukera zabaltzen dau honek eta honegaz batera, herriko eta bere bizilagunen asmoak be, eta zergatik ez, ibai-kultura berreskuratzeko aukera be, itsasadarran eta bere inguruan, baita hiri zatietan be, paisaia eta baliabide naturala ikusteko aukera, honek alkarrekintzak sortuz, ibai-hiriaren arteko alkarriketa bideratuz. Itsasora barriro "begiratzea" jarrera soziokulturala da, Gernika-Lumo etorkizuneko hiri lez garatzeko aukerak kualitatiboki biderkatuz.

**VEN Y DESCUBRE  
COMO SE VIVIA EN URDAIBAI**  
hace 2300 años

Bisitak : **Zapatu edo Domekatan**  
Visitas: Sábados o Domingos



Ordutegia - Horario: **10:00h. - 14:00h.**

**ZATOZ ETA EZAGUTU**  
**ZELAN BIZI ZIREN URDAIBAIN**  
orain 2300 urte

Tlf: 634 24 37 62 arrolagune@visiturdaibai.com

Arrolagune: Loiola Auzoa 4 - 48383 Arratzu (Bizkaia)

  
**Arrolagune**  
Arrolako Oppidum-aren  
Interpretazio Zentroa





## Nicolás García Borreguero

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako  
zuzendari-kontserbatzailea

### URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA

Urdaibai Biosfera Erreserba izendatu eban UNESCOk orain 30 urte, Eusko Jaurilaritzak sustatuta, *"Mundakako Itsasadarraren Aprobetxamentu Plan Berezia"* dalako proiektua geldiarazteko 70.hamarkadan sortu ziran herritarren mobilizazioen ondoren. Horrek Urdaibaiko ekosistemen suntsipena ekarriko eban eta geure ondare naturalaz gain, geure bizi-kalitatea erabat kaltetua suertatuko zan.

Hasieran, ingurugiroaren degradazioa ekiditzeko inguru pribilegiatu hau babesteko asmoa bazan be, Biosfera Erreserbaren izendapena, eta ez beste bat, Parke Naturala lez, gizakia eta inguru naturalaren arteko oreka mantentzean oinarritu zan. Horregatik, beharrezkoa zan babes modu bat baliabide naturalen erabilera jasangarria bermatzea eta aldi berean, Urdaibaiko biztanleen garapen sozio-ekonomikoa sustatu.

Izan be, Biosfera Erreserbak kontserbazioa eta garapen jasangarriaren arteko oreka lortzeko guneak dira, bertako bizilagunen bizimodua hobetzeko. Horixe da hauen helburu nagusia.

Inguruko garapen jasangarria sustatzeko guneak lez ulertu ahal doguz, ikuspegi ezberdinetik (gizartea, ekonomia, ekologia...) bizimodu jasangarria bilatuz.

Azken finean, mundu mailako arazoen aurrean tokiko irtenbideak eskeintzen dabezen guneak dira, hauek antolakuntzako modu onak zabaltzen dabez mundura. Horrela azaltzen da Biosfera Erreserba batek bete beharreko hiru funtzioetan: ondare naturala eta kulturalaren kontserbazioa, lurraldeko garapen sozio-ekonomikoa eta inguruko ikerketa, trebakuntza, zabalkuntza eta interpretazioaren alde egitea.



## Noelia Serna

Gernikako Musutruk Kafe Antzokiaren jabea, Jon Alastragaz batera

### GERNIKAN, HEMEN GURA DOT EGON.

Nire ostalaritzako ibilbidean, askok dakizuenez, koktelgintzako lehiaketa askotan parte hartu dot baita irabazi be. Zuotako askok harritu egiten zarie era honetako txapelketetan parte hartzeko izan behar dan prestakuntza maila ezagutu ondoren. Nire lanbidea bokazioa da baina baita prestakuntza be. Asko ikasi behar da, ikastaroetara, azoketara eta produktuen aurkezpenera joan behar da, egunean egoteko eta bikaintasun profesionala lortzeko. Praktika, ikasketa eta ikerketaren ordu asko sartu behar dira, teknika zainduagaz koktelak prestatzeaz gain denbora jakin batean, koktelaren gaineko inspirazioa eta jatorriaren historia be kontatu behar da. Koktela aurretik sortu behar dalako. Koktel barriak sortzeko, koktelgintza klasikoaren oinarri on bat euki behar da eta zaporeen, usainen eta destilatuen zein era guztietako edarien testuren erregistroa izan behar da. Bidaietan be inspirazioa hartzen da, zapore barriak deskubritzen direlako eta kultura ezberdinen edariak edota bazkariak prestatzeko erak ezagutzen diralako.

Hemendik hasita, beti be Gernikatik natorrela esaten dot harro-harro. Abestiak horrela dino: *"Gernika es tan pequeño, que no se ve en el mapa ..."* ta nazioarte mailako lehiaketetan, Madriletik edo Bartzelonatik doazen lehiakideak garrantzitsuak direla ematen dauen arren, nik mapan jartzen dot Gernika. Gernikak historian izan dauen garrantzia azaltzen dot, Gernikako urrezko garaiaren historiakaz batera. Bizkaiko leku ezberdinetatik, Bilbotik be, Gernikara jaten eta edaten etortzen zireneko garai harek. Jatetxe eta taberna garrantzitsuak egoazan eta profesional onak be, hauei eskeri esaldi ezagun bat sortu zan: *"La copa rica en Gernika"*

Eta izan genuena mantentzen dogu. Ostalaritza maila handia izaten jarraitzen dogu Gernikan, kategoriakzko ostalaritzaren ondorengoak garelako. Horregatik, askotan Musutruk hiri handi batean egon beharko zala esaten dostenean, balitekela erantzuten deutset...baina Musutruk Gernikan dago, hemen gura dogulako egon.





## Batxi Aranburu

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria  
Busturialdeko Ur Partzuergoa

### KONTZIENTZIA HARTU ETA JARDUN, GIZARTE JASANGARRIRAKO GAKOAK

Gizarteen garapena eta industrializazioak, produktu kimikoen kontsumoa areagotzea ekartzen dau, halabearrez.

Geure etxeko ohiturak kontutan hartuta, egunero osasunarako eta ingurugirorako toxikoak diren produktu ugarien erabilpen intentsiboa egiten dogula ikusten dogu: norberaren garbitasunerako produktuak, etxeko garbiketarako produktuak, medikamentuak, toallatxoak, pinturak eta barnizak, tinteak, insektizidak, erregaia, eguzkitako kremak, eta abar.

Nekazaritzan eta industrian orokorrean erabiltzen diren konposatu kimikoen erabilpenari begira, erabilitako substantzia kimikoen kopurua gero eta handiagoa da eta konplexuagoak dira hazkunde esponentzialagaz.

Produktu asko araztegiara doaz. Hautetatik, ibaietara edota itsasora doaz hauen efluenteak.

Gizartea ohartu behar da ur hondakinen araztegiak ez dagozela prestatuta ez diseinatuta bez edozein kutxatzailea mota tratatzeko. Horregatik, konposatu asko tamalez azkenean uretara doaz.

Uretara heldu orduko hauetako sustantzia batzuen ezaugarriak giza-osasunerako eta ekosistemarako arriskutsuak direlaz ohartu behar gara.

Ibuprofeno edota eguzkitako kremen maila altuen gaineko barriak gero eta gehiago entzuten dira tamalez, adibidez.

Ezin dogu arazoari uko egin irtenbide teknologikoen irtenbideak bilatuz. Gizarteak norberaren jarrerak aldatu behar dauz. Kontzientziazioa, heziketa eta praktika onak zabaltzea lan honetan gakoak dira.

Komune denetarik (botikak, olioak, pinturak, toallatxoak, janaria, eta abar) hartzen dauen zazar-ontzia dalaren ideia ekiditzea hasera xume ezinhobeak izango da.



## Ana Urrutia

Mediku geriatra eta geriatrian doktorea.  
Torrezuri Taldeko Kudeatzaile Zuzendaria eta  
Cuidados Dignos Fundazioko Presidenta

### BAKARDAEA ZAHARTZAROAN

Batzutan, bakarrik bizitza erabakitzen dogu aukera pertsonala lez. Burujabetasun sentzasinoa gustukoa dogu, geure bizitza kontrolatzen dogulakoan, askatasuna. Eta ondo dago. Kudeatu ezin dogun edo ez dakigun bakardadearen aurrean gagozenez sortzen da arazoa. Nagusien kasuan, egoera askoz be larriagoa da. Izan be, baliabide eta tresna gutxi daukez eta are gutxiago pertsona ahulak eta mendekotasuna daukeen pertsonak badira. Pertsonak hil eta ile batzuk beranduago deskubritu egiten diran notiziak entzuten doguz egunero. Eta ez inor gomutatzen dalako, baizik eta sortzen dauen hatsagatik. Gogorra da baina erreala. Egun baten gu izan ahal gara pertsona hoiek...

Bakarreak pertsona nagusietan gorrotoa, saminkeria, tristezia eta estutasuna sortzen dau. Murrizketa kognitiboa be igartzen jake eta portaeran be arazoak izaten dabez. Azken finean, osasuna ahuldu egiten da, mendekotasun, gaixotasun eta hilkortasun arriskua gehitu egiten da. Geure gizarteak hau ez gertatzea zaindu behar dau, hauxe da arteztu bako kontua. Horretarako, pertsona hoiek merezi daben balorea emon behar deusague. Euren bizi-ibilbide ia guztia bete ondoren, alde batera uzten doguz "ez dabelako ezertarako balio". Pertsona hoiengandik ikasi dogu, hezitu gaitue eta balorea kentzen deusague.

Aurrerapen teknologiko barriei esker, bakarlean bizitzeak sortzen dauzen arriskuak batzuk minimizatzea lortu dogu. Halanda be, gizakiak gara eta beste pertsonak harremanak egiteko beharrezko sentitzen dogu, euren laguntasuna sentitu gura dogu, lasaitu egiten gaitue. Besteek pertsona baliotsua garela ustearen beharrezko sentitzen dogu. Horregatik, teknologiak barriak egon arren, makinek ez dabe beharrezko hori beteko, ezta pultserek ezta equipo modernoek bez. Ezerk ez dau besarkada edo mosu bat ordezkatzeko. Konpainia on batek biziak salbatzen dauzelako, edo behintzat, kalidade gehiago emoten deuto biziari...eta epeltasuna.

# APARTEKO PAISAIA INDUSTRIALA

Muruetako buztinaren kalidadeak eta kopuru handiak bertan teilak egiteko fabrika bat eratzea ekarri eban. 1892.urtean, herriko lurratan, itsasadarraren ondoan, “*La Estrella*” fabrika ezarri zan. Busturialdean sortu zan lehenengoetariko fabrika izan zan. 1973. urterarte martxan egon zan. Fabrika honen aztarnek, laranja koloreko tximinia zirringagaz, itsasadarraren ikuspegi ederrekaz bat egin dabe eta egurrezko ontziolen arintasunagaz, postalezko irudi eder bat osatuz.







**G**aur egun teileriak inguruaren xarma eta paisaiaren nortasuna sendotzen dauz eta eskualdeko industria-bilakaeraren hastapenen adierazgarri da. Urdaibaiko ondare historikoaren parte da. Atzera begiratu behar da bertan teileria zergatik ezarri zan ulertzeko. Era tertziarioan hasi zan guztia, mendiak sortu zirenen garaian. Prozesu honek sedimentu ezberdin asko sortu ebezan eta Urdaibain aberastasun geologiko apartekoa utzi eban.

Adreiluak eta teilak fabrikatzeko enpresaren izena "La Estrella" izan zan, baina 1973.urtean zarratu zan arte, izenez aldatu eban askotan, "Aurrera" eta "Cerámicas Murueta" bilakatu arte. Instalazioaren erakargarriena 32 metroko altuerako tximinia da. Bilduman produktuak egiteko erabiltzen zan antxinako labea nabarmentzen da be. Euskadin kontserbatzen diren Hoffman modeloko ale bakarrak dira labe hauek. Asmakizun honek adreiluak sailean egiteko produkzioa goitik behera aldatu eban. Labeak, planta angeluzuzenekoa, ganbaratan banandutako galeria dauko. Bertako sistemari esker, sua konpartimentu bakoitzean egosketa prozesuan osoan zehar etenbarik pasatzen eban. Hori da gaur egun kontserbatzen dan guztia, baina martxan egoan garaian

biltegi guneak eukazan, sikatzeko guneak, makineria eta langileentzako ostatua be.

Materiala trenez eta itsasoz garraiatzen zan. Trenbidea aukera bideragarria zan. Bilbo-Bermeo linea ondotik igarotzen da eta orain gutxi arte teileriaren parean eukan geralekua. Halanda be, itsasotik garraiatzen zan gehienbat. Teileriaren ondoan dagozan ontziraletuak ez ebezan erabiltzen enpresak. Horren orde, Astilleros de Muruetaren parean egoazan beste ontziraletu bi erabiltzen ebezan. Antxinako teileria balorean jartzeak oraindik bideragarritasuna aurkitu ez dauen asmo handiko proiektua da. Herriko Udalak azpiegitura hauek berreskuratzeko hasierako pausuak emon ebezan, tximinia eta labeak berreskuratuz.

Urdaibaiko txoko honek, bere naturak, estetikak eta kromatismoak magnetismo erakargarria dauke. Inguru hontaz gozatzeko sarbide ezberdinak dagoz, itsasotik edota lurrik. Herriko erdigunetik, Muruetako eliza inguratuz, 500 metroko paseotxoak bertara eramango zaitu, Gernika-Lumotik, "erreka hegaltatik" hasita 6 kilometroko ibilbideak edota garraio pribatuko aukera ezberdinak erabilia.



## ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA INGURUMEN OSASUNA

### Laborategia

Esperientzia eta espezializazioa Ur eta Elikagaien Analisirako Laborategi Mikrobiologiko gisa, hala nola, barneko airearena.

### Aholkularitza

Aurreratutako irtenbide teknologikoen Aholkularitza, Diseinua, Aplikazio eta Kontrola.

### Prestakuntza

Elikagaien eta Ingurumen arloetan prestakuntza eskaintzen dugu, pertsonen euren lanpostuetarako behar duten ezagutza-maila handitu dezaten.



San Isidro II industrialdea, Idarsolo kalea 15 - 3.2 bulegoa, 48160 Derio





Ana Otadui

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARIA

Bizkaiko Batzar Nagusiaren bigarren agintaldiari ekingo deuto, ohorez eta erantzukinez. Erakundea ezagutzera emotea da bere helburuetako bat. Izan be, Batzar Nagusietan Bizkaiko Lurralde Historikoaren gaineko erabaki nagusienak hartzen diren arren, legebiltzar honen funtzionamendua oraindino ezezaguna da herritar askorentzat. Beragaz, gizartearen eta politikaren eboluzioan emakumezkoek izandako paperaren inguruan be berba egin dogu.

**UM:Bigarren legegintzaldia Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria lez, Zeintzuk dira legealdi honetako proiektu nagusiak?**

Ohore eta erantzukizun handia da Gernika bezalako legebiltzarraren presidentia izatea, horrenbeste urteetako historia eta tradizio demokratikoa daukolako honek. Hauteskundeetara programa eta proiektu

argiagaz aurkeztu ginan, non kalidadezko enplegua geure helburu nagusia dan. Gainera, Bizkaiko inguru ezberdinetan proiektu estrategikoak garatuko doguz; itsasadarraren azpikoa, Bizkaiko dorrea, Gaztelugatxeko Doniene, Supersurreko bigarren fasea, Lea Artibaiko labar-artearako gunea, geure lurraldeko ardatz diren bidegorriak, geure biztanlegoaren bizi-



*Zaindu eta gozatu*





kalitatea hobetzeko proiektutako batzuk dira. Geure Legebiltzarraren inguruan markatutako helburuei dagokionez, bi dira oinarritzkoenak, Bizkaiko Batzar Nagusiak ezagutzera emoten jarraitzea eta geure erakundetik gizon eta emakumezkoen arteko benetako bardintasunaren alde egitea.

**Geurikako Arbola euskal libertateen sinboloa da eta Batzar Nagusiek gaur egun parlamentu modernoa osatzen dabe. Nola eragiten dau bere jarduerak Bizkaiko Lurraldeko kudeaketan?**

Edozein parlamentu batek ordezkatzan dauen biztanlegoan eragiten dauen bezala eragiten dau. Bizkaiko Batzar Nagusiak dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren herri ordezkariak eta partaidetzaren organo nagusiak. Eta geure egunerokotasunean eragin zuzena egiten daben erabakiak Gernikan hartzen dira. Ordaintzen doguzen zergak, nagusientzako egoitzak eta eguneko zentruak, bizkaibus-a metroa, azpiegitura nagusiak, proiektu kulturalak, gai guzti hauek Batzar Nagusietan eztabaidatu eta onartzen dira.

**Geure historiaren sustraiak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako balio historikoa, politikoa eta kulturala herritarrek behar dan beste ezagutzen dabeela uste al dozu?, eta gaur egungo euskal politikan daukon eraginaren garrantzia?**

Zoritxarrez eta atsekabez ezetz esan behar dot. Guk ahaleginak egiten doguz geure erakundeak ezagutzera emoteko. Horretarako, ekimen ezberdinak burutzen doguz eta sektore ezberdinetara heltzean saiatzen gara. Izan be, Bizkaia anitza eta plurala da eta guztion artean eraikitzen dogu. "Osoko Txikiak" jarri doguz martxan, erakusketak antolatzen doguz eta Abellanedako Batzarretxean zein Gerediagakoan jarduera ezberdinak egin doguz, EHUKo kolaborazio hitzarmenaren bitartez artista gazteak geure Bilboko erdigunean daukogun salan artelanak erakusten dabez, Euskalfondoako erakunde ezberdinekaz kolaboratzen doguz, ABAO, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte, Gernikako Arbolaren kimuak landatzeko ekitaldiak



Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako mahaiari

*Lehendakari Agirrek bere kargua Gernikan zin egitea ez zan izan kasualidadea, ezta gainontzeko lehendakariak be tradizio honegaz jarraitzea bez. Gernikako Arbola Euskal Herriko sinbolo unibertsalena da. Geure eskubideen eta askatasunen sinboloa eta geure herriaren bake gogoen sinboloa be.*

be ezagutzera emoteko modu on bat da. Aurrekontu handirik gabe, baina ekimen ezberdinekaz herritarrek euren legebiltzarra ezagutzea saiatzen gara, ezagutzen dan hori baloratzen eta defendatzen dalako.

**Legegintzaldi honetan eta lehen aldiz emakumeena izango da gehiengo Bizkaiko Batzar Nagusietan. Nolako eragina izango dabe emakumeek kudeaketan?**

Geure lege biltzarraren osaketa Bizkaiko gizartean izandako bilakaeraren isla da. Atzera begira, Berrezarkuntzaren ondoren eratutako bizkaiko

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es



RELOJERÍA - JOYERÍA

Lejarraga

Adolfo Urioste, 2  
Tlf: 946 25 06 30  
GERNIKA-BIZKAIA



# JUNTAS GENERALES BIZKAIA



Ana Otadui emakumeok Bizkaiko historian izandako paperaren gaineko Batzar Nagusiek publikatutako liburuaren aurkezpenaren buru.

legebiltzarran emakumearen partaidetza testigantzakoa izan zan eta urteak aurrera egin ahala emakumeok aurrera egin dogu eta gaur egun emakumeena da gehiengo legebiltzarran. Galdera nagusia horixe da: Kudeaketa ezberdina egiten dogu emakumeok zein gizonen? Gidaritza ezberdinez berba egin al dogu? Ahal dodan bakoitzean era honetako galderak egiten dodaz. Emakumeok enpatikoagoak garela da nire konklusioa, taldean lan egiea gustatzen jaku, borrokatik ihes egiten dogu, adostasunak bilatzearen alde egiten dogu...

*Bizkaiko Batzar Nagusiak dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren herri ordezkari eta partaidetzaren organo nagusiak. Eta geure egunerokotasunean eragin zuzena egiten daben erabakiak Gernikan hartzen dira.*

**Iparragirreraren bertso ezaguna aipatuz: "Gernikako Arbola... Eman ta zabal zazu munduan frutua..."** Batzar Etxea eta Gernikako Arbolaren baloreak bisitatzen gaituzten milaka turisteek ezagutzen dabeela uste al dozu?

Inolako duda barik. Gernikako Batzer Etxea Bizkaian gehien bisitatzen dan gunea da Bilboko Guggenheim eta Arte Ederretako Museoen atzetik. Zazpi lurraldeetako euskaldunok maite eta errespetatzen dogun gunea da, Euskal Herrirako sinbolismo handikoa da. Lehendakari Agirrek bere kargua

Gernikan zin egitea ez zan izan kasualidadea, ezta



[www.restaurantezimela.com](http://www.restaurantezimela.com)



## ■ ZURE EZKONTZA OSPATZEKO GIRO ONENA

Izan ezazu ezkontza paregabea eta eksklusibotasun osoagaz

## ■ EUSKAL SUKALDARITZA

Adituak euskal ohiko sukaldaritzan

## ■ GERTAKARIAK, JAIK ETA OSPAKIZUNAK

URDAIBAICO jai hoberenak

Telf: 946 251 012



gainontzeko lehendakariak be tradizio honegaz jarraitzea bez. Gernikako Arbola Euskal Herriko sinbolo unibertsalena da. Geure eskubideen eta askatasunen sinboloa eta geure herriaren bake gogoen sinboloa be. Gernikako Arbolaren kimuak 5 kontinenteetan dagoz sustraituta. Ia 200 urte igaro dira Iparragirrek "Gernika Arbola" konposatu ebanetik eta errealdade bilakatu dala esan geinke eta horrela izaten jarraitu behar da.

### **Ze gertaera izan dira nagusia zeure politika ibilbidean? Zertaz zagoz harro?**

Nire politika ibilbidea 2007. urtean hasi neban Elorrioko Udaletxean, nire herrian, zinegotzia lez. 2009. urtean Izaskun Bilbaoren oinordetza hartu neban Eusko Legebiltzarrean eta 2011. urtean inoiz ahaztuko ez dodan Osoko Bilkuran Elorrioko Alkatesa hautatu eusteen. Elorrioko lehenengoko alkatesa, hortaz harro sentitzen naz bereziki. 2015. urteko ekainatik geure inguruko tradizio handieneko erakundearen presidentia izatearen ohorea daukat.

*Emakumearen partaidetza testigantzazkoa izan zan eta urteak aurrera egin ahala emakumeok aurrera egin dogu eta gaur egun emakumeena da gehiengoa legebiltzarran. Galdera nagusia horixe da: Kudeaketa ezberdina egiten dogu emakumeok zein gizonen?*

### **Nolakoa da Ana Otadui politikatik aparte? Zer egiten dozu aisialdian?**

Uste dot beti Ana naizela, horrela sentitzen dot. Nire familiaz gozatzea gustatzen jat, Agate nire 4 urteko alabagaz. Paseatzea gustukoa dot eta landarak eta loreak zaintzea.

### **Nola gura zeunke jendeak zu gogoratzea?**

Bihotz oneko pertsona lez.

Argazkiak: (c)Bizkaiko Batzar Nagusiak

Urdaibai Magazineko 17. zenbakian *Jonathan B. Tourtellot, National Geographic Society*-ko Jomugen kudeaketa Zentroko zuzendariaren elkarrizketa publikatu genduan, goren mailakoa turismo jasangarrian. Geure jomugaren kudeaketa adimentsuaren ikuspuntuaren aldetik bere edukia egiten dauen ekarpenaz gain, elkarrizketa hau *Destination Stewardship Center de National Geographic Society* web ospetsuan publikatu da. Bertan, Urdaibai, beste jomugentzako adibide gisa aipatzen da.



### **JONATHAN B. TOURTELLOT**

National Geographic Society-ko Jomugen kudeaketa Zentroko zuzendariaren



**J**onathan B. Tourtellot-eri Urdaibai Magazine 17. enean egindako elkarrizketan, *National Geographic Society*-ko Jomugen kudeaketa Zentroko zuzendariak jomuga turistiko jasangarriko irizpieak jarraituaz Urdaibai nola kudeatzearen gaineko funtsezko galderak erantzun ebazan. Elkarrizketak oihartzun bikoitza izan dau. Izan be, planteamendua ikusita, Tourtellot Jaunak geure elkarrizketaren galderak ikusita, honen edukia Busturialdea bezalako ezaugarriak daukeen beste jomugentzako erabilgarria izango zala konturatu zan, jasangarritasuna

bilatzen daben jomuetarako, hain zuzen be. Horrela, Urdaibai Magazineko aurreko zenbakian publikatutako *"TURISMOAREN ARRAKASTA BALIOKO IRIZIPIDEEKAZ NEURTU BEHAR DA ETA EZ BOLUMENEO IRIZIPIDEEKAZ"* izenburuko elkarrizketa *Destination Stewardship Center* web orrian publikatu da. Web orrialde hau turismo jasangarrian espezializatua da, *National Geographic Society*-ko fundazioaren barnekoa. Web orrialdean *"EUSKAL JOMUGARAKO AHOLKUAK"* izenburupean publikatu da.

[www.destinationcenter.org](http://www.destinationcenter.org)-en elkarrizketa hau ingelesez irakurri ahal da, Urdaibai Magazineko web orrialdearen loturagaz batera.

Gutziz harro gagoz geure aldizkaria zabaltzeagaz eta berau eta Urdaibaiko izena ospe handiko erakundeekaz batera agertzeagaz, baita Jonathan B. Tourtellot-en mailako profesionalakaz kolaboratzeagaz be. Eta noski, Urdaibai Magazinek burutzen dauen lan xume baina nekazina eta sakona onarzea be pozten gaitu. Eskerrik Askoi!







## TRIBISBURUKO NEKROPOLIA, ERRAUSKETEN HASTAPENA BIZKAIAN

Altxor arkeologiko hau Sollubeko iparraldeko mendi-hegalean dago, 500 metrotako altueran, Urdaibaiko kostaldeko eta barnealdeko ikuspegi ederrak eskainiz. Bizkaian lehen aurkitutako errausketen nekropolia da, bakarra. Eta penintsulako iparraldeko handiena da. Tribisburuko nekropoliak errausketen hileta erritoak antxinatik datozela frogatzen dau, erromatarrengandik jasotako oinordetza da K.o-ko I. eta II. mendeko aztarnategi honetan agerian dagoena.

Lehenengo aipamenak 1933. urtekoak dira. Orduan, inguruan egindako azterketa batek erromatar garaikoak izan ahal ziran aztarnak detektatu ebazan. Ondoko urteetan ez zan ikuskapenik

egin, eta landaratza ugariak aztarnategia estali eban barriro. 2013. urtean Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Kulturalaren zerbitzuak Tribisburu sartu eban bere ikerketa proiektuen barne. Juan Jose Cepedak



**EGOITZA** eta  
**EGUNEKO ZENTROA**

**ZERBITZU BIAK  
ALDUNDIAGAZ  
HITZARTUTA**

EZ DUGU  
EZ LOTURA FISIKORIK  
EZ KIMIKORIK ERABILTZEN  
PERTSONA ZAINTEKO

**Carlos Gangotti, 22  
GERNIKA  
Tel.: 94 625 82 88  
www.torrezuri.com**



Barrenkale, 13  
48300 GERNIKA

Tlno. 688 649 894  
endika.kafetegia@gmail.com





arkeologoaren zuzendaritzapean burututako indusketa lanek geure arbasoek I. eta III.mendeetan erabilitako hileta-errituen aztarnak aurkitu dabez.

Tribisburuko nekropolia hilobi-estrukturen bilduma izugarriaz osatuta dago. Orain arte 10 hilobi-estruktura aurkitu, induskatu eta ikertu dira, harearizko harlangaitzaz egindakoak. Lau angeluko gelatxoak dira, 15 metro karratu ingurukoak, pasabide batez bananduta. Hauetan errautsak eta bertan hilobiroitutakoen elementuen aztarnak aurkitu dira. Besteak beste, soinekoak, oinetakoak, armak, apaingarriak, beirazko zein keramizako gauzak. Gaur egun, eraikinen oinarriak ikusten dira, baina adituen arabera estruktura bakoitzak metro 1'erdiko altuera izan ebeen eta bi isuriko harrizko teilatuak, hau da, etxola txikien antzerakoak ziran. Esparru hauetan inguruko herrixka bateko hildakoen errautsak gordetzen ziran. Herrixka hori oraindik ez da aurkitu. Nekropoliaren tamaina ikusita hauxe hiri edota hirigune biena izatea pentsatzen da.

Hildakoen gorpuzkiak mausoleo txiki hauetan sartu aurretik indusketak egiten ziran. Erritu hau ustrina izeneko plataformen gainean egiten ziran, esparruaren kanpoaldean. Hilobi sumetak hilobien gainean ezartzen ziran, egurra pilatzen zan, hildakoen gorpuak errausteko; ondoren hondakinak batu eta mausoleoetara eramaten ziran kutxatan gordetzen ziran. Garai hartan ez egoan errausketak egiteko behar beste tenperatura hartzeko baliabiderik. Honi esker esparruetan hildakoen hazurrak eta haginak aurkitu dira. Tribisburun bereizgarria da errausketa erritua, Bizkaian aurkitutako era honetako erromatar nekropoli bakarra da oraingoz.

Arkeologoek kanpoaldean ikatza, azkora baten aztarnak edota bestelako materialen zatikiak aurkitu dabez baita be, kristalak, besteak beste. Errausketak egiteko erabiltzen ziran lubakiak batzutan hilobiak bezala erabiltzen zirala frogatzen dau honek. Halanda be, lurraren azidotetasunagatik ezinezkoa izan da gizakien hondakinak kontserbatzea.

Tribisburuko aztarnategia oraindik indusketa eta ikerketa fasean dago. Oraindik geratzen dira arlo batzuk argitzeke, besteak beste, nekropoliaren azalera osoa edota honi lotutako herria. Edozelan be, zorroztasunez azaldu ahal dan informazio guztia Urdaibaiko Ibilbide Historikoetan parte hartzen dabenen eskura dago, udan Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarritako ekimenean.



*Gaur egun, eraikinen oinarriak ikusten dira, baina adituen arabera estruktura bakoitzak metro 1'erdiko altuera izan ebeen eta bi isuriko harrizko teilatuak, hau da, etxola txikien antzerakoak.*



Urdaibaiko Ibilbide Historiekn barneko Tribisburuko aztarnategira egindako bisita gidatua.

En tu oficina MAPFRE te aconsejamos

Y si aún no eres cliente, con nuestro recomendador de productos podrás conocer qué productos se adaptan a tus necesidades

ACONSÉJAME

  
**MAPFRE**  
Gernika



Teléfono:  
946254608

Horario de atención:  
L-V 09:00-14:00 / 16:00-19:00

Juan calzada kalea 1, 48300 Gernika-Lumo



# NARDIZTARRAK, ESKU HANDIKOAK POLITIKOAK ETA BERMEOTARRAK

Nardiz abizena Bermeogaz lotuta dago, baita Euskadiko bilakaeragaz be. Nardiztarrek, euren eraginari esker, herriko kai-muturra eraikitzeko dirua lortu ebeen 1912ko galnaren ondoren. Halaber, Nardiztar haien ondorengoa zan Gonzalo Nardiz, politikoki aurrez-aurre egoana, eta Gonzalo Nardiz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako lehenengo Sailburua izan zan.

**B**ermeoko Udaletxearen alboko fatxadan, Alde Zaharran, kaleari izena emoten deutson plaka dago, Nardiz tar Jon kalea. Horrela, Bermeoko herriak Nardiztarrek izandako eskuzabaltasuna eskertu eutseen. 1912.urtean zoritxarra heldu zan Bermeora, itsasoaren enbata eta ekaitz bortitzaren formagaz. Abuztuaren 12atik 13rako gauan, 143 arrantzale, hoietatik 116 Bermeotarrak, zendu ziran Matxitxakoko muturratik 45 milietara arrantzan zebiltzani. Tragedia horren ondorioz, urte hartan, Errege- Dekretuaz onartu zan kai-muturra eraikitzeko proiektua. Ekimen honegaz Nardiztarrek herriaren babesu lortu ebeen. XIX.mendean Nardiztarrak monarkikoak ziran eta familia honek oso harreman onak eukazan Alfonso XIII.agaz. Nardiztarrek herriko politikan parte-hartzen ebeen, baita lurraldeko politikan edota nazionalean be. Euren eragina erabili ebeen Bermeoko kai-muturraren

eraikuntzan ahalbidetzeko eta bide batez, aldeko botoak hartzeko.

Nardiztarren leinuak izen nagusi asko gordetzen dauz. **Andrés** Nardiz Hurtado de Mendoza, Bermeotarra, Bermeoko Udalaren egoan 1830.enean, Bizkaiko Batzar Nagusietan Bermeoko ordezkaria izan zan (1833) eta Donibane Lohitzunen Espainiako kontsulordea izan zan. Bere emazteagaz, Dionisia Paula Mezeta, Bilbotarra baina Gernika-Lumon eukana jatorria, seme-alaba ospetsuak izan ebezan. Senar-emazteen semeak **Ricardo, Galo eta Jon** izan ziran. Galo Nardiz Mezeta Bermeoko alkatea izan zan (1883-1887). Ricardok nautika ikasi eban eta Ameriketako bidaiaren bigarren pilotu partikularra izan zan. Mundu guztian zehar bidaiatu eban eta kapitaina titulua eskuratu eban. Politikan, Ricardo Alderdi Liberalaren kide izan zan hauteskunde-batzordean (1868), Bilboko Udalaren zinegotzia izan zan 1872.urtean eta



Durungaldeko hautesbarrutiaren Gorteetako diputatua 1873.urtean. Jon Nardizeri buruz, bere izena, Nardiz tar Jon izena hartzen dau Bermeoko kale batek, eragin handiko bi gizonen aita izan zala badakigu: **Venancio** eta **Enrique** bere semeak izan ziran. Venancio Nardiz Alegria, itsas-armadaren kapitaina izan zan, Gernikaldeko hautesbarrutiaren Gorteetako diputatu lez hautatu ebeen 1920 eta 1923.enean. Hauen garaikidea izan zan **Gregorio** Nardiz Zulueta. Bera izan zan Eusko Jaurlaritzaren lehen Sailburua izan zanaren aita 1936.an, Gonzalo Nardizen aita, hain zuzen be.

Gregorio baporeen negozioan sartu zan eta merkataritza-bidaiak egiten ebezan. Bermeo-Gijón-Bilbo bidean merkataritza arrakasta handia lortu eban. Bide honetan ikatza garraiatzen eban Asturiasetik Bilbora (Lutxana), bertan ikatz-briketak egiten ziran eta Bermeon gordetzen ziran hauek. Espainiako hegoaldera be egiten ebezan bidaiak Bermeora gatza eramateko.

Politika arloan Gregoriok ez eban jarraitu bere senideen ildoan, liberal-monarkikoak ziran Nardiztarrak. Bere erro ideologikoak foralistak ziran eta Sabino Aranagaz, Eusko Alderdi Jeltzaleagaz bat egin eban. Horrek, beste Nardiztar monarkikoen haserrea eta beragaz berbarik ez egitea ekarri eban.

Gregorio Nardiz Zulueta, Dionisia Bengoechea Idoyagagaz ezkondu zan, Ibarrangelutarra jatorriz, bi seme, alaba bat eta ugase me bat euki ebeen.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako **Gonzalo Nardizen** biografian agertzen dan bezala, bertako lehen Nekazaritza Sailburua izan zana, bere historia Bermeon hasi zan, bere jaioterrian. Bertan oinarritzko ikasketak egin ebezan. Ondoren, bere familia aberatsa zanez, Bilboko Santiago Apóstol eskolan ikasi eban batxillegoa. Bertara, trenez heltzen zan Sukarrietatik, Busturialdeko beste ikasle batzukaz batera. Garai hartan trena ez zan heltzen Bermeora. Ingeniaritzan matrikulatu zan, baina nautikara pasatu zan eta mundu guztian zehar bidaiatu eban, hizkuntzak ikasiz. Futbolzale handia zan, eta hori dala ta, Bermeoko lehen futbol taldean ibili zan, "Lagun Etxea" izenekoa (1926-1936). Baina bere zaletasuna motorrak izan ziran. Antza danez, Londresko motorren fabrika batek, mesederen bat egin ondoren, urtero motorra barri bat bidaltzen eutson Bermeora.

20 urte eukazala, bere anai-arrebak hil ziranez, bere izeko ezkonbako bien ondasunak oinordetzan hartu ebezan, baita gurasoen enpresa eta ondasunak be. Halanda be, oinordetzan hartutako aberastasuna eta negozioa ez ziran izan nahikoak. Gonzalok politika zuen gustuko eta bide horri ekin eutson.



Bermeoko Nardiz tar Jon Kalea.

*Gonzalo Nardizek eginkizun handia euki eban politika utzi arte 1979.enean, 42 urteko erbestealdia bukatu ondoren. Lehendakari Aguirre hil ondoren bera ezinbestekoa izan zan Eusko Jaurlaritzaren jarraipenerako.*



Bermeoko Udaletxearen alboko fatxadan dago Nardiz Tar Jon kaleko plaka



Orain eta beti



## GONZALO NARDIZ, EUSKADIKO POLITIKAREN AITZINDARIA

Gonzalo herriko lagun eskutik sartu zan politikan. Bera baino nagusiagoak ziran lagun hoiak eta irakurketak eta kezkek partekatzen ebezan. Hoi en artean, Benito Barrueta edota Juan Asteinza medikua.

Gonzalo Nardizek berak horrela azaldu eban nola hasi zan jarduera politikoan:

*"Asteinza medikuaren etxean elkartzen ginen Bermeon. José Manuel Ispizua, Benito Barrueta margolaria, Sarasola frantziskotar fraidea eta beste batzuk be elkartzen ziran. Ni nintzen gazteena, eta horregatik, ni nintzen Irakurle Ofiziala. Irakurri egiten gendun. Nire prestakuntzari asko lagundu eutsanak irakurketen ondoren egiten ziran iruzkinak izan ziran".(\*)*

Gonzalo Nardiz oraintxu sortu zan Eusko Abertzale Ekintzaren (EAE) kidea zan, honen sortzailea bere lagun mina zan José Manuel Ispizua izan zan (Bermeoko alkate ohia, diputatu ohia eta Comución Nacionalista Vasca-ko kide ohia). Hori dala ta, 1931.urtean, Bermeo Udalaren zinegotzia izan zan alderdi antimonarkikoan. II.errepublikan Bizkaiko Foru Aldundiko kudeatzailea izan

zan. Gorteek Autonomía Estatuta onartu ondoren, 1936ko urriaren 7an, Jose Antonio Aguirre Lehendakariak, Eusko Jaurlaritzako lehen nekazaritza sailburua izendatu eban.

Gonzalo Nardizek eginkizun handia euki eban politika utzi arte 1979.enean, 42 urteko erbestealdia bukatu ondoren. Lehendakari Aguirre hil ondoren bera ezinbestekoa izan zan Eusko Jaurlaritzaren jarraipenerako. Garai hartan Eusko Jaurlaritzako ordezkaria zan Baionan. Etapa frankistan, Eusko Jaurlaritza mantendu eban erbestean, Euskadiko historiarako ezinbestekoa.

(\*) (Euskadiko Artxibo Historikoa/Archivo Histórico de Euskadi. Fondo Archivo Histórico del Gobierno Vasco, Fondo Carlos Blasco Olaetxea, Entrevista a Gonzalo Nardiz, pp2-3)

Alfontso XIII. Erregea eta Errege familiaren beste kide batzuk 1926. enean Donostiako Nautikoan. Irudian Venancio Nardiz agertzen da (Itsas komandantea) Kutxa Fototeka Artxiboa. Creative Commons. By- NC-4.0".  
Marín. Pascual Marín.

Agintari ezberdinak Iparraldeko Geralekuan, hoi en artean Joaquin Pavia Bermingham (Gurutx Gorriko presidentea), Irastorza (Orihuelako obispoa) eta Venancio Nardiz (Itsas komandantea). guregipuzkoa.net/@CCby-sa. Fondo Marín. Pascual Marín



**Etxe-agentzia aditua**  
**Etxeen salerosketa edo alokairua.**

Industria, 2 beheak,  
48300 Gernika -Lumo

Bilatzen dozun hori ez badozu aurkitzen, galde  
iezaiguzu eta aurkituko dogu.







Visit Urdaibai

© bai Nueva Europa

Urdaibaiko esentzia ezagutzeko

# BISITA GIDATUA

turistikoak  
kulturalak  
ekologikoak

*Zeure neurriko  
plana egingo  
deutsugu!*



Informazio gehiago eta erreserbak: 634 24 37 62

[www.visiturdaibai.eus](http://www.visiturdaibai.eus)



# IDARRAK... UDABARRIKO PERLA BERDEAK

Idarrak, arveja, chícharo, petipuuás...deitu eiozu gura dozun bezala, baina perla itxurako lekale hau aparteko altxor gastronomikoa da. Itxura txikikoa da baina geure osasunean onura handiak dakartza eta dastatzeko gozoa da, batez be idarrak freskoak badira.

**B**ere kontsumoa milaka urtekoa da. Idarren hondar fosilak Ekialde Hurbileko 10.000 urtetik gorako aztarnategi arkeologikoetan aurkitu dira. Horregatik, landara zaharrenen artean dago eta gizakion kontsumorako kultibatu dan lehenengoetarikoa da. Kristo aurreko 2000. urtean idarren kultiboa Europara heldu zan jada.

*Gregor Mendel-ek genetikaren oinarrien gaineko bere esperimēntueġan idarrak erabili ebezan.*

Etimologiari dagokionez, *arveja* hitza *ervilia* hitz latinoatik dator, *ervum*-etik datorrena, "algarroba". Espainian arveja berba erabiltzen da idarra esateko. Latinoamerikan eta Estatuko zenbait eskualdeetan *guisante* hitza erabiltzen da. Baina beste erak be badagoz, Andaluzian eta Galizian, adibidez, *chicharo* berba eragiltzen da, mozarabieratik datorrela. Eta euskaraz, idarra esaten da. Baina zenbait

lekutan gaztelaniazko *arvejilla* hitza erabiltzen da, Durangon eta Urdaibaiko herri batzutan, kasuan kasu.

Idarra barazkia dala pentsatzen dauena erratuta dago. Iderra edota *Pisum Sativum* lekalea da, dilistak edota garbantxuak bezala. Baina egia esan, bitamina ugari dauzka, antioxidatzaile, mineralak eta osasunerako ekarpen asko, eta barazkien parekoa da horretan. Eta bere zaporea apartekoa da, testura gozokoak eta samurrak dira.

Idarrak sasoi freskoko uztak dira, udabarrian zein udagoienean jatekoak. Adi egon behar gara idar freskoak jan ahal izateko bere sasoi laburrean, martxotik ekainera. Baina idarra urte guztian jan ahal dogu izoztuta, lehortuta edota kontserban.

Idarrak kultibatzeke lur garana eta arina behar da. Ez dauz ondo jasutzen lur azidoak, maiztasunez ureztatu behar da eta eguzkitan egon behar da. Merkatu plazara bere sasoi hurbildu ezkeroko idar freskoak erosteko aukera izango dogu eta bermatasun osoz, lekatan edota garanduta. Ider kilo bat izateko lekatan bi kilo t' erdi erosi



beharko dogu. Kontserbatzeko modurik onena garandu barik frigorifikoan gordetzea da. Eta izoztuta gorde ezker, hobe da garanduta eta galdarraztauta gordetzea.

#### OSASUNERAKO ONURAK

Idarrak vitamina B1-en aberatsak dira, 200 gramokaz egunean gomendatutako kantitatearen bi herenak betetzen dira. Gogo-aldartearen hobetzeko lagungarria da bitamina ekarpena hau eta horregatik idarrak jatea gomendatzen da, batez be, udabarriko astenia dalakoari aurre egiteko. Oso indargarriak dira eta sistema neuronalaren zelula-ehunaren osasunaren gaineko onuraz gain, ulearen, azalaren eta atzazalen leuntasunarako onuragarriak dira.

Mineralei dagokionez burdina, fosforoa eta magnesioa emoten dabe. Idarren proteinen indizea barazki freskoen baino lau bider gehiagokoa da. Idarrak karbohidrotorik gehien eskeintzen dauen lekalea da, batez be azukre disolbagarrietan. Horrela, hazteko garaietan, haurdunaldietan, umezaroan eta adolesentzian jatea gomendatzen da.

#### IDAR APARTEKOAK, URRE PREZIOKO ALTXORRAK

Idarren artean "kabiarr berdea" izenez ezagutzen direnak dira ondoen baloratutakoak, Getariako malko-iderrak preziatuak. Ider aparteko hauek, Gipuzkoako kostaldean hazten dira eta bitxia bada be, goizaldean batzen dira.

*Iderrak diabetikoentzako egokiak dira daukeen pektinagatik. Hauxe, digestinoa egiteko eta glukosa hartzeko baliogarria dan zuntz disolbagarria da. LDL kolesterola eta Koipe saturatuaen absorzinoa gutxi egiten dau be.*

Zergatik goizaldean? Ba leka bakoiza eguzkia irten aurretik batu behar dalako garauak ez berotzeko, ez urundutzeko, garauen azukrea eta esnea almidoian bilakatau baino arinago.

Malko-iderrak oso delikaduak dira, azukre eta esne asko dauke azalean. Horregatik bere zaporea *delicatessen* hutsa da. *Gourmet* gutxi batzuk bakarrik eskeintzen dabe produktu hau, goi mailako sukaldaritzako jatetxeetan. Ider aparteko hauen kiloak 300 edo 350 euro kostatu ahal dau. Dastatu ezker, pena merezi dauela diñoe.

### ERREZETA-IDARRAK URDAIAZPIKOAGAZ ETA ARRAUTZA-GORRINGOA GALDARRAZTUTA

4 pertsonantzako

#### OSAGAIK:

- Foruko Etxenagusi baserriko iderrak 750 gramo
- Urdaiazpiko zatiak 150 gramo
- 2 berakatza-atal
- 3 olio koilarakada
- Eusko Label arrautza 1
- Gatza
- Piperbaltza
- Boilur baltza

Sutan ipini ura. Irikitan hasi eta iderrak bota. 10 minututan utzi sutan edota iderrak bigunak egon arte. Behin egosita, ura atera eta gorde. Zartagin baten olio su geldoan ipini eta berakatza txikituta gehitu. Ez gorritu berakatza. Urdaiazpiko zatiak bota zartaginera eta eragin. Iderrak gehitu eta egozten utzi minutu batzutan. Gatza eta piperbaltza probatu. Ura irikitan jarri beste katilu baten. Arrautza-gorringoa banandu Gorringoa film-paperean batu eta ur irikitan sartu, minutu batez. Iderrak platerean ipini eta galdarraztutako arrautza-gorringoa kolokatu hauen gainean.

Boilur baltza arraspau eta haustu. Jan, lagunekaz edota familia artean ahal izanezker.

On egin!





# URDAIBAIKO PADURA, PAISAIA ALDAKORRAREN ABERASTASUNA

Urdaibaiko bihotzak mareen erritmora ponpatzen dau. Itsasadarra eta padurak paisaia aldakorra eskeintzen dabe, beti be ederra. Kultura eta aisialdiko baliabide natural honek ikerketa zientifikoa eta garapen ekonomikoan garrantzi handia dauko. Itsasoko ekosistemak ezinbestekoak dira flora eta faunaren kontserbaziorako, hemen euskal kostaldeko hezegunerik garrantzitsuenetariko bat daukogu, bai bere hedaturagatik baita habitat ezberdinen kontserbazio mailagatik be. Urdaibaiko padurak ur gozo eta gazien nahasteak sortzen dauen aberastasunaren adibide apartekoak dira.



Urdaibaik 600 hektareako padura daukoz. Urez betetzen dan eremua da. Bi gune bereizten dira hemen mareen arabera: bata, itsasgoratan urez betetzen dan padura eta bestea, gorago dagoen padura, marea bizietan bakarrik desagertzen dana. Hondar buztintsu eta basatsua bizi-bizia dago. Ornobakoen talde anitzak dagoz eta harrietan zein oskoletan inkauta dagozan itsasbedar barietate handia be, hauek lurrean alfonbrak eratzen dabez. Migrazio-aldietan eta neguan atseden gune garrantzitsua da hegazti ezberdinetarako.

XVIII. mendean padurak herri-lurrak ziran, herritarrentzako zerbitzura. Bakoitzaren beharrezanetarako gune libreak ziran. Auzokoeke erabiltzen ebeen doan, baina banakako erabilpena be izaten ebeen udalari ordaindu ezker. XIX. erdialdean pribatizazinoa emon zan. Orduan, paduren jabeak ziran herri bakoitzaren herritarrek adjudikazinoaren bitartez eskuratu behar ebeen. Padurak saltzea erabaki eban lehenengoetako herria Gauegiz Arteaga izan zan 1806. urtean, honen ondoren Kortezubi be. Azken honek, 1810. urtean ihitoki bat saldu ebezan herritar biri. 1840. urte inguruan Urdaibaiko padurak partikularrak ziran. Giza-aztarna hau oraindik ikus daiteke Gauegiz Arteaga, Kortezubi, Foru, Murueta edota Busturiako paduretan.

## MUNAK

Historikoki, Urdaibaiko padurak baserrietako ekonomiaren osagarriak ziran. Paduratik hurbil bizitzen zirenek ekosistema aberats eta anitz hau erabiltzen ebeen. Garia, artoa edota naboa landatzeko gunea lez, abereentzako bazkalekuak eta ongarriak egiteko ihiak batzeko gunea lez.

Kortezubin, adibidez, San Emeterio eta San Zeledonio jai egunen ostean egiten zan ihien banaketa, martxoan, eta denboraldia izan arte, hauek moztea debekatuta egoan, isunak jarriz. Foru ihiak sortatan banatzeko sistema erabiltzen zan, hauen zozketa eginez.

Nekazal erabilerarako, eremua lehortu behar zan harresiak (munak), drainatzeak eta konportak eginez. Hauei esker mareak ez sartzea lortzen zan. Bertako bizilagunek egiten ebeen zarratze lan hau, sail luzeak eginez itsasadarraren ubidearen parean. Hesi baten barruan sail ezberdinak batzen ziran. Urdaibain paduren 600 hektarea dagoz eta lehortutako gunea 300 hektareakoa da. Herri-lurretako larreen ustiapena librea eta doakoa zan, horregatik erabiltzen zan padura abereentzako bazkalekuak lez.

## Gauegiz Arteagako Juanito Iribar Ozollo,



81 urte dauzkala, nostalgiaz gogoratzen dauz paduretako lurrak (polderrak) lantzen ziran garai harek. Lur hauetan artoa eta garia lantzen ziran, batez be. "Gauegiz Arteagan antxinan herriko familiek ortuak egiteko erabiltzen

ebeen 14 hektarea izango doguz. Normalean, zati bat artoarako erabiltzen zan eta beste bat gariarako. Izan be, familia bakoitzak bere etxerako ogia egiten eban. 8 egunerako ogia egiten zan, kilo biko ogiak aste baterako. Garia kentzen zanean naboa ereintzen zan. Ha kentzen zanean ereintzen zan artoa", kontatzen dau. Padurari "kendutako" lur hauek nola lantzen ziran be ez dau ahaztuten, beti be guztia danon artean egiten zan eta. "Abuztuan garbitzen zan, ur hiletan. Marea goran sartu behar ginan. Esku bategaz botea eta ugerrien beste aldean. Urtero egiten ziran ikuskapenak. Tapaderak, bisagrak eta abarrekoak apurtu egiten ziran eta uraren pisuagaz konportak zabaltzen ziran. Hamaitzatu behar egin doguz. Baina beti alkarri laguntzen. Auzolanak hortik datos, hori eta gari-jotea. Hamaitetako egiteko ogia eta ardu ez ziran falta".

Garai hartan inguruko fauna eta flora landutako larre haietan bizi egiten ziran, elikagaiak eta gordelekua bilatuz bertan. "Polder" hauek inguruan betetzen ebeen papera gorai patzen dau Juanitok: "Guztia egoan garbi-garbi, ez egoan sasirik, lurra lantzen zan, erein egiten zan. Txoriak hemen babeslekua eta janaria aurkitzen ebeen. Orduan mingorak, kurlintxak, itsas-eperra, patoak, koartzak eta abar egoten ziran...ehiza asko egoten zan. Ez egoan gaur egun bezalako hainbeste basurderik edota orkatzik. Arrantza...hemen harrapatu doguz lupinak, muxarrak, platuxak, izkirak, margolak, txirlak... eta neguak, angulak eta aingirak".





*Oraintxu Eusko Jaurlaritzak  
guztiz debekatu dau  
itsaski-bilkeña Urdaibain.*



## MARISKO BILKETA URDAIBAIN

Tradizioz padurak elikagai iturri izan dira: ostrak, erezak, berberetxoak, muxilak, txirlak edota muskuiluak harrapatzen ziran hemen. Halanda be, oraintxu Eusko Jaurlaritzak guztiz debekatu dau itsaski-bilketa. Urdaibain moluskuen 3 gune dagoz. Itsaski-bilketarako gune debekatuta Muruetako Ontzioletatik Gernika-Lumorako eremuraino doa, baita Txatxarramendi irla eta Mundakako Portua be. B gunea eskumaldekoa da, itsasadarratik Txatxarramendi irlararte eta Sandindere irlatik Muruetako ontzioletararte doan gunea. C gunea, ezkerraldekoa da, itsasadarratik Sandindere irlararte. B eta C guneetan harrapaketa moluskuen arazketa gune bat egotearen baldintzapean dago. Gune hau ez dagoenez, moluskuen harrapaketa guztiz debekatuta dago Urdaibain.



BERRIKUNTZA  
ETORIKIZUNA  
AURRERAPENA

**Bizkaia**  
azpiegiturak



## NOLA PARTE HARTU

Bere proiektu enpresariala "Arratzu Elkartegi Langunea"n ezartzeko interesatuek hemen kontaktatu:

azpiegiturak@bizkaia.eus/ Tel. 946 073 700

## ARRATZU ELKARTEGIA LANGUNEA





# BANAKETA PUNTUAK

## AJANGIZ

Udaletxea / Kultur etxea/

## ARRATZU

Udaletxea / Arratzuko Taberna / Oleskoko Taberna/

## BERMEO

Udaletxe / Udal liburutegi / Kultur etxe / Kiroldegia / Kasino / Antzoki tabernan / BBKn / Batun Batun taberna / Izaro tabernan/ Loidxe cafetegia / Zubi Gane taberna / Omago taberna / Gurea taberna/ Fruniz taberna / Andeko taberna / Atxurra hotela / Almiketxu jatetxea / Royo Kontserbak / Zallo Kontserbak / Arroyabe Kontserbak / Urdaibai Kontserbak S.L / Salica Industria Alimentaria S.L/

## BUSTURIA

Udaletxea / Udal liburutegia / Batzokia / Ekoetxea/ Lurkoi Baserría / Arroategi egoitza / Zelaiondo egoitza / Lurdeia Baserría/

## EA

Udaletxea / Kultur etxea / Txangurru taberna / Batzokia / Ermintxo hotela / Bekale hotela / Beletxe/ Egoin/

## ELANTXOBE

Udaletxea / Kultur etxea / Santi taberna / Itxas Etxea taberna / Kraken taberna/

## EREÑO

Udaletxea / Ereñoako jatetxea / Atxoste taberna/

## ERRIGOITI

Udaletxea / Herriko taberna/

## FORUA

Udaletxea / Kultur etxea / Urdaibai Taberna / Calabria egoitza/

## GAUTEGIZ ARTEAGA

Udaletxean / Kultur etxea / Castillo de Arteaga / Txoko Gazteluzar / Artea taberna / Egala taberna/

## GERNIKA-LUMO

Udaletxea / Udal liburutegia / SendagaiKontsultategia/ Kiiroldegia / Endika taberna / Mil kolorau taberna / Mil Azules taberna / Musutruk taberna / Sonsierra taberna / Auzokoa taberna / BBKn / Scanlan's (Irlandes) taberna / Arkupe / Arriza taberna / Arribaltza taberna / Ipar Aizea taberna / Legoie taberna / Anaiak taberna / Foruria taberna / Sakone taberna / Ai Ene taberna / Bakeder taberna / Etxarte taberna / Alboka taberna / Caserío taberna / Faisan berria taberna/ Espaloi taberna / Twente taberna / Nere Kabia taberna / Rugby taberna/ Omago taberna / Boliña El viejo jatetxea / Boliña nuevo taberna/ Ares gozotegia / Bidaguren gozotegia /Txoko Bakeleku / Calzada egoitza / Torrezi egoitza / LKG / Euskal souvenirs / Urremendi /

# URDAIBAI MAGAZINE

© bai Nueva Europa

## IBARRANGELU

Udaletxea / Kultur etxea / Mar Mar taberna / Atxarre taberna / Bizkaine taberna / Batzoki

## KORTEZUBI

Udaletxea / Udal liburutegia / Herriko taberna / Bernaretxe taberna

## MENDATA

Udaletxean/ Idatxe etxea/ Artape taberna

## MORGA

Udaletxea / Kultur etxea / Katxi jatetxe-taberna / Poli jatetxea/

## MUNDAKA

Udaletxea / Udal liburutegia / El Puerto taberna / Goikoa taberna / Jaten taberna / La Fonda taberna / Bar del Polideportivo Isla Kale / Gure Etxea egoitza / Bihotz Sakratua egoitza /Mundaka hotela / Atalaya hotela/

## MURUETA

Udaletxea / Kamiñoko jatetxe-taberna / Herriko Taberna / Ibaigune hotela/

## MUXIKA

Udaletxea / Kultur etxea / Egoitza Olabe/

## NABARNIZ

Udaletxea / Kultur Etxea / Aboitz taberna / Nabarniz Jatetxea/

## SUKARRIETA

Batzoki / Udaletxea / Plazuela taberna/

## URDAIBAI MAGAZINEKO BANAKETA PUNTUA IZATEKO INTERESATUTA BAZAGOZ



Jarri gugaz kontaktuan. Bidali eiguazu zure helbidea eta geure aldizkaria helaraziko deusuegu doan.



94 625 06 06



urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com

## Beti-Jai



# HISTORIAK TANTUA EGIN DAU PASEALEKUKO TXAPELKETA 'MITIKOAN'

Gernika-Lumoko *"Pasealekuak"* barriro be dar-dar egin dau txistu, saskiratze, golak eta tantuen soinuekaz, berreskuratutako *"Pasealekuko Txapelketan"*. 41 urte igaro dira txapelketa honen lehenengoko baloi jaurtiketak emon ziranetik. Txapelketaren 32. edizio egin ziran. 8 urtetako etenaldiaren ondoren, iaz bueltatu zan eta aurton barriro be berbiztu egin dauz *"atzoko egun eder haiek"*.

U da, futbola, saski, esku pelota eta Pasealekua giro bikainaren sinonimoak dira Gernika-Lumon. Pasealekuko Kirol Txapelketa barrizuta bueltatu da bere esentzia galdu barik: gazteen udako aisialdia dinamizatu kirol afizionatua gazeta partaidetza-giroagaz. Oroimenak, herritarren partaidetzak eta udalaren esku-hartzeak, txapelketa hau bueltatu deuskue, argi eta garbi kohesio sozialaren alde eginez. Gernika-Lumoko Udalak, Gernika KESB-ek, Gernika Atletismo Taldeak eta Arkupe Pelota Taldeak antolatuta, eta aurton be Gernikako Merkatarri Elkartuak

eta Nafarroako Rural Kutxaren kolaborazioagaz, kategoria ezberdinetako, benjaminetik seniorrera, 106 taldek parte hartu dabe areto-futbola, saski-baloia eta, aurton lehen aldiz, esku pelota kirol modalitateetan.

Gernika-Lumoko Udalatik txapelketa hau kirolatik harago doala nabarmentzen dabe: *"Igazko udan Gernika-Lumoko Udalak Pasealekuko Txapelketa antolatu ebanean barriro gune hau herritarren topaketa gune lez berreskuratzea zan helburua, Gernika-Lumoko gazteen aisialdiaren eskaintza handituz eta aisialdi osasungarria zein herritarren arteko harremanak sustatuz. Txapelketa honen*

## Ezagutu Gauegiz Arteaga pausoz pauso



Gauegiz  
ARTEAGA

TURISMO





hasierako garaiak ezagutu doguzenontzat, txapelketa hau gogoangarria da eta kuadrillen arteko topagunea. Gazteentzako herriko lekurik enblematikoenean egiten da eta hortxe berregokitze lanen garrantzia. Herritarren partaidetza oso handia da. Partaidetza kopurua edota zenbat publikoa dagoen partiduak ikustea, besterik ez da ikusi behar horretarako. Bere oihartzuna kirolatik harago doa. Antolakuntzan dogu talde ezberdinen lana biziki eskertu gura deuseg. Izan be, lan goraipagarria egiten dabe eta”, azaldu dau Maria Uribek, Gernika-Lumoko Lehenengo Alkateordeak.

### Ekimen on bat

Hasierak guttiz ezberdinak izan ziran baina ilusioagaz dana lortzen da. Eta horrela izan zan orduan. 1978. urtean, trantsizino demokratikoan bete-betean, Gernikako Batzokiako (EAJ-PNV-EGI) gazte talde batek, herriko kirolaren bitartez gazteen aisialdiari aukera emotea pentsatu eban, garai hartan bakarrik futbola. Pasealekua udako arratsaldean gune nagusia bilakatu ebeen. Ideologia politikoak eta kuadrillen arteko haserreak alde batera utziz, garrantzitsuena jokatzera zan, ondo pasatzea eta udan lagunaren artean arratsaldea igarotzea, herritik irten barik. Txapelketak Gernika-Lumoko gazteak eta herritarrak batzen ebezan eta ondoko herrietatik be bazetorren jentea, kirolaz eta giro onaz gozatzeraz. Luis Ortuzar eta Alberto Zarrabeitia gernikarrak Batzokiko Futbito Txapelketaren talde sortzailearen bi partaide izan ziran, Udako Pasealekuko Txapelketaren jatorria izan zana. Garai hartan errealidadea ezberdina zan. Ez egoan gaur egun dagoen hain eskaintza handia gazteen aisialdian. Ez egoan eskola kirolaren txapelketarik, ezta

ia kirol arautu modukoa egiteko aukerarik. Gernika-Lumoko dinamismo sozio-kulturala irakiten egoan, pildetan. Gazte bizkor harek ez ebeen imajinatu bez bere ekimenak izango eban arrakasta. Eurek giro on bat sortzea bilatzen ebeen, kiroltasunaren bitartez, eta txiri-txiri herri guztia buru-belarri sartu zan. Esfortzuagaz lagunak eta topaketak babesteko Gernika-Lumoko enpresen esku-hartzea lortu ebeen. Hasieran, arbitratzeko eta txapelketak antolatzeko lagunaren laguntza izaten ebeen. Apurka-apurka aurrera joan zan dana. Hasiera batean txapelketa hiru kategoriatan egiten zan eta geroago bost izatera pasatu zan. Eskuz egiten ebeen hasieran dana, autodidaktak izan ziran ia. Kirol zelaien markak be eurek margozten ebeen eta sareak Bermeoko arrantzale batek ekarri ebezan, arrain usainagaz eta guzti! Futbolearen aritza zan asmoa, txapelketa baten, baina, lagunaren artean jokatzearan giro onean, noski.

Areto-futboleko talde gutxi batzuk hasi zanak geroago udaro ehundaka gazte batzen ebezan Pasealekuko Txapelketan. 500 partaidetik gora euki ebeen inoiz. Oraindik, gaur egun garai hartako talderen oihartzuna gogoratzen da herrian: “El Pedrusco”, geroago Gernika Sporting futbol taldea sortu ebana, “Bai”, “Batxatxa”, “Atxatab”, “Sigertatxu”, “Samasiku” eta beste hainbeste mitikoak.

Izen propioak be badagoz geroago futbolari bihurtu ziranak, hoiaren artean, Ricardo Arrien “Richi”, Txiki Gandarias, Iñigo Urbarri edo Jabi Olaeta. 1984. urtean

## TABERNA AUZOKOA

**GERNIKA-LUMO**  
Tel. 94 625 16 66



@euskalsouvenirs



**EUSKAL SOUVENIRS**

Andra Mari kalea, z/g  
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)

94 625 19 30

www.euskalsouvenirs.com

neskak hasi ziran txapelketan parte hartzen eta talde horietako neska batzuk Gernika-Lumoko futbolerako nesken taldea sortu ebezen.

### Zergatik desagertu zan?

Esan geinke kasualidade-mukurua dala eta txapelketa amaitu zala. Pasealekuan egin ziran lanengatik txapelketa San Fidel Ikastolara eta Institutura eraman zan, baina publikoa gutxitu zan eta giroa ahuldu zan. Bestalde, aseguru enpresek txapelketarako polizak garestiagoak jartzen ebezan. Eskoletan sortzen ziran eskola-kanpoko kirol jarduerak areagotu ziran, kantera egiten hasi zan eta herriko futbol taldeak umeentzako taldeak sortzen hasi ziran Bizkaiko Federazioko txapelketetan parte hartuz. Guzti honek txapelketaren erakarmena gutxitu eban. Zortzi urtez dike lehorrean egon ondoren Pasealekuko kirol txapelketa bueltatu zan eta izandako arrakasta ikusita, giroan, partaidetzan eta ilusioan, geratzeko bueltatu dala espero dau publikoak. Gernika-Lumoko gazteen topagunea eta kohesioa izaten jarraitzea da asmoa, historia egiten jarraituaz.

Igazko udan areto-futboleko zaletuen arteko ekimena eta ilusioa, lagoba Bermeosolo buru zalarik, eta Udal Gobernuako kudeaketa eta ahaleginari esker, zailtasunak gainditu ebazan eta aurton, bigarren etapako bigarren txapelketa antolatu dabe. Barriro be publiko gogotsua batzen da, hamaikatxo lagun arratsaldero hurbiltzen da Pasealekuko txapelketaren partidua ikustera. Honek udalaren eta antolakuntzan sartuta dagozan kirol modalitate ezberdinetako pertsonen esfortzua bermatzen dau.



Futboleko partidua Pasealekuko Txapelketan. Uztailak 2019.

### Estibaliz Makazaga, Gernika KESB (Txapelketaren antolakuntza)

"Nobedade gisa aurton txikien 10 taldeen partaidetza dogu, oso balantze positiboan, eta goi mailako talde gehiago erregistratu dira. Federatuak zein federatuak ez direnak, txapelketaren giro bikainagaz gozatzen ari dira bai kanpoan zein kantuan."

### Carlos Galán, Gernika Arin Arin Atletismo Taldea. (Txapelketaren antolakuntza)

"Klubak beti egon da kirol jarduera eta ekimen ezberdinen antolakuntzan sartuta. Horregatik, orain bi urte lagoba Bermeosolok, lagun handia, antxinako Pasealekuko txapelketa berreskuratzeke laguntza eskatu euskunean, aukera on bat ikusi gendun askok udako txapelketetan bizi izan dogun hori, eta galduta egoana, berpiztuteko. Baita Pasealekuari bizia emoteko eta gazteak lokaletatik ataratzeko aukera on bat".

### Urtzi Bidaburu, Arkupe Pelota Taldea (Txapelketaren antolakuntza)

"Paregabea da jentearen partaidetza, 20 pareja nagusietan eta umeek kontuan hartuta 35-40 bikote inguru. Lehenengo bider dala kontuan hartuta, oso gatza da erregistro horrek lortzea, harri eta lur geratu ginan hainbeste jente apuntatu zala ikusi genuenean. Beste alde batetik, txalotzekoa da jentearen babesa eta egunero egunero izandako giroa. Argi geratu da Pasealekuak badaukala berez magia berezi bat jentea erakartzeko eta hori zelan edo halan aprobetxatu egin behar da".

### Iagoba Bermeosolo. (Txapelketaren antolakuntza)

"Igaz proiektua berreskuratuta, aurton sendotuta geratu da partaidetza handiagaz eta guraso, herritar eta gazteen poztasunagaz. Hauxe, Gernika-Lumorako kirol zein kultura proiektu barrien hasiera puntua izateagaz konformatuko nintzateke. Jokabide kontua da gehien bat, gehitzeko borondatea eta bakoitzak, bakarrik zein taldean, hau lortzeko zer egiteko prest dagoen".

Funeraria Tanatoria  
**IZARO**



GERNIKA  
C/ Don Tello, 18  
Tel.: 94 625 83 23

izaro@funerariaizaro.es

BERMEO  
Bizkaiko Jaurreria, 21  
Tel.: 94 618 63 78

**LK**  
LOGÍSTICA

GARRAIOA,  
BILTEGIRATZEA,  
BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es






# ► Mugikorra- rekin ordaindu.

Supermerkatuan, gasolindegian, farmazian, denda edo erosketak egitera joaten zarenean edo bidaiatzen duzunean... ordaintzeko, erabili Bizum, Apple Pay, Samsung Pay, Google Pay™...

KutxabankPay app-ari esker, mugikorra esku-dirua eramateko modurik onena da.

- Txartelak piztu eta itzali.
- Zure banku guztiak ikusi, Kutxabank app-etik.
- Urrunetik izenpetu.
- Maileguak berehala jaso.
- Saldoak ikusi, ordainagiriak ordaindu eta transferentziak egin.



**Zu hara,  
gu bertara.  
Kutxabank  
mugikorrean.**





# **Drogek honela uzten zaituzte**

**Kontsumoak atzerarik gabeko  
kalte zerebrala eragiten du**

**Lagundu zure seme-alabei,  
ez dezatela burua gal**